

Usaiña guztiz gal neban barriz.
O, gizon zoro tentela!
Poz-atsegiñak eskuratzeko
Ekar ninduzun zelaitik,
Poz-atsegiñok amaitu yatzuz,
Eder-jantziok ausi ta urratuz,
Zelaian bertan utzirik.

ONDORENA

Gizona beti gizon izango,
Gogo poztasun egarri;
Men guztiekaz atsegin gura,
Ta eroturik beko zoruna
Arrapatzeko urduri.
Baiña atsegiñok igeskor izan,
Munduko gauzak ilkorrak:
Esku-eskuan doguzala-ta,
Poz andienaz ibilten gara,
Ta, poztasunak an doaz!

Arrugain

ZEUK NAI DUZUNA, JAUNA

(Juan Ramón Jiménez)

Zeuk nai duzuna, Jauna:
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Nai ba'duzu, arrosa artean,
bizitzaren argi-dizdirak
iturburuetaruntz irriz,
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Nai ba'duzu, kardu artean,
betiko gauaren ondogabetasun
itzaletaruntz odolez,
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Eskerrak begira nezan nai ba'duzu,
eskerrak itsutu nai ba'nuzu,
eskerrak guztia ta ezerezgaitik;
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Zeuk nai duzuna, Jauna;
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Otsalar'ek euskeratua